


Astekaria

# BARREN elgoi



## Intsumisoen epaiketak



PVC, ALUMINIO eta POLIURETANO AROZTEGIA

*Egunez egun zuzandik hurbilago*

Santa Ana 28an (Sigmako zubian) ELGOIBAR ☎ 74 43 83

### LEIHO ISOLATZAILEAK

- \* Climalit beira bikoitza.
- \* 10 urteko garantia idatziz.

ESKA EZAZU AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE



**Lagun agurgarri hori:**

Espetxeetan ematen ari diren gertakari larriek giza eskubideen alorrea lan egiten duten elkarteetan argi gorri guztiak piztu dituzte. Gizakiaren degradazioa errealitate bat da gartzele-

tan, eta gero eta gehiago dira kaltetuak: preso sozialak, intsumisoak, preso politikoak.

Egun, makina bat euskal hiritar dago kondena betetzen etxetik, herririk eta lagunengadik urrun dauden espetxeetan, legeak berak ematen duen aholkuaren aurka. Sakabanaketa horren ondorioz, oinarritzko giza eskubideen bortxaketa eguneroko gauza bihurtu da.

Jipoiak, isolamendua, irainak, politika ez gizatiar baten adierazle latzak dira.



Ez dago sakabanaketa justifikatzeko aitzakirik. Euskal preso guztiak Euskal Herrian egon behar dute, beraien eta familien eskubideak, osotasuna eta duintasuna bermatzeko modu bakarra baita. Hori lortzeko, gizartearen konpromezua eta inplikazioa derrigorrezkoa da. Zure/zuen laguntzaren premia dugu, bai praktikoa, eguneroko lana aurrera ateratzen, bai morala, ekimen hau izenaz bultzatuz, bai eta ekonomikoa ere, bestelako laguntzarik ez dugulako.

Apirilaren 23rako "Euskal Preso Guztiak Euskal Herrira" lemapean ekitaldi nazional baterako deia egin dugu. Honen bidez ere, hara joateko gonbidapena luza-tzen dizugu/dizuegu.

# APIRILAREN 23AN DENOK DONOSTIARA

**IZENA EMATEKO Jai-Alai, Oiz Mendi eta Txuri Beltz tabernak**

**AUTOBUSA 4etan IRTENGO DA PLAZATIK**

## elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

### ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia

### HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua

### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso  
Jasone Osoro

### MAKETATZAILEA:

Maike Rementeria

### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

### ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste

### KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Pentsioak zintzilik

**N**ahita edo nahiezta, Pedro Solbes, Ekonomia eta Hazienda ministrariak orain aste gutxi egindako adierazpenak, hau da, etorkizunean, agian 2.020. urtetik aurrera pentsioak kobratzeko arazoak izango direlari buruzkoak, Estatu osoan, logikoki, alarma sortu du.

Orain alperrikakoak dira administrazioko bozeramaile eta Ekonomiako titularraren ondorengo xehetasun eta ukapenak, batez ere aspalditik denok dakigunean arazo honetatik ezin dugula ihes egin.

Ministrariak gainditzeko dagoen gai erreal eta ia premiazko hau mahai gainean jarri du. Beharbada, argitara azaldu behar zen eguna aurreratu besterik ez du egin.

Hala ere, Gobernuak, ohituak dauden bezala, lehenengo globosonda bota du, eta hori egiten du zerbait nahi duenean, ideia bat bota eta bere oihartzuna aztertu eta bitartean gizartea emeki-emeki arazo horretaz jabetzen eta ideia onartzen doa.

Horrekin batera prentsan gaurrengungo pentsio sistema aldatzeko sortzen ari diren zenbait agiri sartzen ari dira eta hauek, beste zenbait gaiez aparte, alarguntasunaren hainbat pentsio kentzea aipatzen dute.

Hala ere, egia zera da, gaurrengungo pentsio sistemak ez duela ezer ere ziurtatzen, eta Gobernuak azken denboraldi honetan aspertuta dago kapitalizazio sistema baten beharra dagoela aholkatzen.

Kapitalizazio pentsio sistema horretatik derrigorrez ez pasatzeko bide bakarra lan merkatuan kotizatzaile gehiago egotea litzateke eta horrek langabezia pentsaezineko eran murriztuko luke. Egia esan, oraindik aztertze zailagoa den gaia da hau.

Bitartean, gure buruari 2020. urteko negua Zestuako Bainuetxean edo Benidorm-en ospatuko dugun galdetuko diogu.

**Jose Inazio Sarasua Garate**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## KEXAK

Irakurle batek honako kexa hau bidali digu: "Ertzainengana inoiz hurbildu izan garenean, gehienetan erdaraz egin beharra tokatu zaigu. Baina, ez genuen uste artzaiei erdaraz egin beharra zegoenik. Albitxuriko zelaian eta artzaientzat ohar gisa Elgoibarko Udaleko "Comision de Cultura" k onartua eta "Concejal de cultura" k izenpeturik, erdara hutsez eginiko 6-8 kartel jarri dituzte. Ez nuen uste gure artzaiak erdaldunak direnik. Ala, beraiek, "Comision de Cultura" koak ote dira erdaldunak?"

## TXALOAK

Hil berri den Asun Gabilondoren senitartekoak txalotu nahi dituen irakurle batek deitu digu. Asko poztu omen da eskelak euskaraz zeudela ikustean. Ez omen da batere normala Elgoibarko eskelak euskaraz ikustea eta gainontzeko euskaldunak gauza bera egitera animatzen ditu. Halaber, funerari etxeei euskarazko eskelak prestatzeko eskaria luzatzen die.

## GALDERAK

### • Noiz hasi behar dituzte Parrokiako lanak?

Parrokiatik esan digutenez, hil honen bukaeran Foru Aldundikoekin batzarra edukitzekoak dira eta batzarraren ostean lanei buruzko informazioa publikoki emango zaio herriari.

# ESKUTITZAK

## Gaztetxearen aldeko ekimena

U rte haseratik, GAZTE ASANBLADA, etorkizun gertu batean herrian GAZTETXE bat sortzearen aldeko laguntza modura, kolektibo, talde, elkarte, aspektu ezberdinetan aipagarri diren pertsona, sindikatu etabarren sinadura bilketa bat burutzen ari da.

"Elgoibarko Gaztetxearen aldeko ekimena" izendaturiko kanpaina honen barruan, sinadura orriarekin batera hainbat datu eta informazio garrantzitsu ematen dugu:

- 1986. urtean Udaletxeak eta Gazte Asanbladak -helbidea ezik- adostasunera iristea lortu zuten estatutu posible batzutan.

- Udaletxeak Siadeco enpresari agindutako "Elgoibarko gaztediari buruzko ikerketa" izendatutako inkesta emaitzen laburpen bat (datuak eta gomendioak). Emaizta hauek, 1992ko otsailetik Udaletxean "bahituak" aurkitzen dira, ziurrenez haien eguneroko ihardueren aurkakoak direlako.

- 1993ko irailean elgoiBARREN astekarian Gaztetxe baten beharrezkotasunari buruz kaleratutako deklarazioak:

guztiak aldekoak.

- Hemendik aurrera ere 1993ko azaroan Errotatxok antolatu zituen "GAZTEAK, DROGA eta AISIALDIA" izeneko ihardunaldien ondorioz, gizarte gaiak ikertzeko gabinetek burututako txostenaren zati bat gehituko dugu.

Honez gero hasi gara gazte kolektibo, musika taldeen... lehen sinadura jasotzen. Baita kirolarien, ikasle elkarte, emakume taldeena ere...

Sinadurez gain, kritikak, sujerentziak, aportazioak... jasotzeko irekita gaude.

Gazteak elkartzeko leku autogestionatu baten beharra - non mota guztietako ekintzak burutu eta gure egoera aztertuko genukeen-, Elgoibarko gazteriaren artean nagusi den sentimendua da. Udaletxearen hertsitasuna bezain argi ageri zaigu egoera.

Bai lokal beharra zein Udalaren hertsitasuna Elgoibarren gai honi buruz egin diren ikerketa guztietan azaltzen dira. Noiz arte?

Jarrera munizipalaren aldaketa beharrezkoa da. Argudioak balio ez bazaizkie, zer gelditzen zaigu?

Honegatik zure sinadura eskatzen dizugu: zure laguntza.

HRRI BAT GAZTETXE BAT

Elgoibarko Gazte Asanblada

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**A**ste honetako erretratua **Jabier Estartak** lagatakoa da. Berau 1957. urtean Udaletzeko Pleno Aretoan ateratakoa da.. Akordatzen al zarete 56. zenbakian “Señorita Anita” akademiako futbol taldea nola atera genuen? Goian daudenei ez omen zaie batere gustatu bigarren gelditu zirenak BARRENEk atera eta txapeldunen aipamenik ez gitea.

Goikoak Pilar Ikastetxeakoak ziren eta finalean 8 eta 2 irabazi omen zieten Señorita Anita-koei. Zeintzuk osatzen duten txapeldunen taldea? Tente, ezkerretik hasita: **Jesus Mari Gabilondo, Migel Angel Garate, Jose Mari Barrutia, Ramon Artola eta Jabier Estarta.**

Makurtuta: **Julian Uribe, Julian Agirregomezkorta, Roberto Mata eta Jose Migel Etxeberria.**

Atzeko aldean, mahaitik begira: **Jose Arriola “Pitxirri”.**

BARRENEk proposamena: zuen arteko haserreak arindu, orduko oroitzapenak gogoratu eta lagun arteko jatordu bat egin asmoz, zergatik ez duzue orduko “errebantxa” jokutzen?

Mintxetako futbol zelaia erdiz-erdi hartu eta seguru egon Haundik jokutzen duenean baino jende gehiago joango dela. Egitea pentsatzen baduzue abisatu eta BARRENEk debalde egingo dizue propaganda.

## ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Landu ezazu!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGINDAKO RONKERAK

**ANGELA ZABALETA AIZPITARTE**

**KANTU IRAKASLEA**

DEITU ☎ 74 15 56 - 11 03 51

Z  
A  
B  
A  
L  
D  
U

B  
E  
R  
R  
E  
N

Errosario 12 behean gaude !

# Intsumisoak auzitara



■ ■ Elgoibarko Talde Antimilitarista intsumisoen gune da. Elgoibarren 50 intsumisotik gora daude.

**Datorren asteartean, hilak 19, bi gazte elgoibartar epaituko dituzte intsumiso izateagatik: Aitor Esnaola eta Iban Esnaola. Bi gazte hauek sendo luza daitekeen zerrenda bateko bi adierazpide baino ez dira. Intsumisioaren gaia pil-pilean dago eta litekeena da, aurrerantzean epaiketa gehiago egotea.**

**A**urten bost gazte elgoibartar epaituko dituzte. Lehena, Antonio Lozano, joan den hilaren 9an epaitu zuten. Sententzia atera da eta 3 hilabetezko zigorra eskatu diote. Momentuz ez da gartzelara joango aurrekari penalik ez duelako. Orain bigarren juzioaren zain dago.

Aste honetan Alejo Rolo gaztea epaitu behar zuten Donostiako Auzitegi Probintzian baina azken unean epaiketa atzeratu egin dute. Alejo Rolo ez daki oraindik noiz epaituko duten. Aitor Esnaolak eta Iban Esnaolak, ordea, badakite datorren asteartean izango dutela Donostiako epailearekin zita. Aurtengo azken epaitua, Luziano Arregi izango da eta epaiketa eguna ekainaren 21a.

Elgoibarko Talde Antimilitarista herriko intsumi-

soen gune da. Azken epaiketa hauek zirela eta, intsumisoak taldera inguratzen hasi dira, orain arte bakoitz bere aldetik ibili baita. Intsumisoak astero hasi dira biltzen epaiketak hasi zirenetik.

## Autoinkulpazioak eta lekukoak



**ANTONIO LOZANO**

22 urte

Intsumiso izateagatik 3 hilabetezko gartzela zigorra eskatu diote. Bigarren epaiketaren zain dago.

Epaietara ahalik eta autoinkulpazio gehien eramaten ahalegintzen dira intsumisoak. Lozanok 150 autoinkulpazio aurkeztu zituen eta Aitor eta Iban Esnaolak ere asmo berbera dute. Autoinkulpazioaren sinatzaileak, pertsona hori intsumiso egitera animatu eta bultzatu duela adierazten du autoinkulpazioaren bidez. Honez gain, lekukoak eramaten ditu epaituak. Orain arte bost lekuko eramaten zituzten baina orain bat bakarrik lagatzen dute eramaten. Aitor Esnaolak herriko parrokoari eskatu dio epaietara lekuko gisa joateko eta Iban Esnaolak sindikalista batzuk eraman-go ditu. Ibanek, gainera, abokatua denez, bere buruaren defentsa egiteko asmoa dauka.

## Epaietari uko egin

Kakizat elkartea epaiketa eta tribunala bera ez

## AITOR ESNAOLA

itor, datorren astear-  
tean epaituko zaituz-  
te. Zelan zaude animoz?

- 88tik nabil rolluakin eta urtero karta bat heltzen jatzu gauza bat egin behar dozula esaten.... Beti horren menpe zaoz eta rolluaz ahazteko gogua dakat. Ez da agradabilia epaiketa bat eukitzia bi urte eta piku eskatzen dizutenian.

- **Haseran erabakiaz kontziente al zinen?**

- Herrixan 11 pertsonak objetatu gendun batera eta orduan soldaduzkara ez jutia pentsatzen dozu. Gero, legia urten zanian gehixao konturau nintzan; 11 hoieta-  
tik danak amnistiau zitxuen Alejo Rolo eta ni ezik. Orduan ikusi zan gaztioi gogor eman nahi zigutela.

- **Intsumisoek laguntza nahikoa duzuela uste duzu?**

- Talde Antimilixan nauanetik, ikusi dot gaztiekin ulertzen dabela asuntua baina herri mailan ez. Orain 5 juiuzioan eta prentsan azaldu danetik, jendia zeozer sensibilizauta dao. Autoinkulpazioak jasotzen ibili naizenian jendiak ondo eran-tzun du. Herriaren erantzuna ikusteko momentua da orain.

- **Lanean arazorik?**

- Lehen kontratu luziak eiteko problemak euki nitxun. Oraingo lanian badakixe juiuzioa daukatela eta hala ere kontratua ein bihar die. Lanian ere, segun zer sensibilitate davan...

- **Gartzelara joateko beldurrik?**

- Bakarrik bai. Komunekin egon bihar zerala jakinda,... oso gogorra da. Taldean beste era batera ikusten dia gauzak, baina gartzela beti gartzela da. 3. gradua deitzen dana ere badao, lo eite-xera bakarrik jun bihar zera. Igual onartuko naban lanian naulako eta kantsauta naulako asuntuakin, baina gero eztaikit.

errekonoizitzeko aukera aztertzen ari da. Epaitua, epaiketara joango litzateke, epaiketa fartsa bat dela adierazi eta ez luke epaiketa errekonozituko. Aukera hau zigor zeharo ezberdinak egon izan direlako sortu da. Gipuzkoan, 2 urte 4 hilabete eta egun bateko gartzela zigorra eskatu die epaileak 12 intsumisori. Beste batzuetan urtebeteko zigorrak, 8 hilabetekoak, 4 hilabetekoak eta gutxiagoakoak ere bota izan dituzte.



**AITOR ESNAOLA**

25 urte

Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteagatik datorren 19an epaituko dute Donostiako auzitegian.

## Mozioa

Elgoibarko Talde Antimilitaristak 6 puntutako mozioa aurkeztu behar du Udaletxean burutuko den plenuan. Idatzian intsumisoekiko elkartasuna eskatzen zaio Udalari eta gartzelara joanez gero, intsumisoari laguntza ematea. Mozioaz gain, Talde Antimilitaristak komunikatu bat kaleratu du epaiketak salatzeko eta, datozen egunotarako mobilizazioak antolatatu ditu.



**IBAN ESNAOLA**

24 urte

19an epaituko dute Ordezko Zerbitzuari uko egiteagatik. Abokatua denez, bere burua defendituko du.



**ALEJO ROLO**

24 urte

Ordezko Zerbitzuari uko egin dio. Hilaren 12an epaitu behar zuten baina atzeratu egin da epaiketa.



**LUZIANO ARREGI**

25 urte

Intsumiso izateagatik epaituko dute ekainaren 21ean.

## IBAN ESNAOLA

**ban, noiztik intsumiso?**

- Objettore 89an. Taldian ein gendun. Idatzi batian zeure burua objetore deklaratu eta "Consejo Nacional de Objecion de Conciencia"ri ez genion eskubiderik ematen zure burua objetore onartzeko. Lehen hola zan.

- **Zergatik hartu duzu zeure burua defendatzeko erabakia?**

- Intsumiso egin nintzanean zuzenbidea ikasten nauan. 93ko urrian kolejiatu nintzan eta momentuz ofiziozko bi kasu bakarrik naukan. Beste klienterik ez naukanez..

- **Zertan oinarrituko zara defentsarako?**

- Bi izango dira argumetuak. Lelegua interpretazio pertsonal bat da: nere ustez, gartzela zigor hauek ez daukate zentzu punitiborik. Insumisoei beldurra sartzen diobe objetore gutxiago egoteko eta objetoreak insumiso ez egiteko. Hori demostratzeko intsumisoek duten benefizio penitentziarioak etab. aipatuko ditut. Bigarrena da, "bien juridico" bat biolatzen dotela baina beste bat salbatzeko: nere kontzientzia ez biolatzeko, soldaduzkara jotera behartzen nauen legia biolatzen dot.

- **Zu bezalako kasurik eza gutzen al duzu?**

- Insumisoen kasuan ez.

- **Ingurukoek zer diote?**

- Laguneri komentatu nien nire asmua. Normal ikusten dabe, gurasuek ere bai.

- **Moraliki, nola zaude?**

- Urduri. Epaiketan ere urduri egongo naizela dakit baina esango dotena ondo ikasitxa dakat.

- **Gartzelara joan behar baduzu,?**

- Gartzelara ez guaz, eraman eitzen gaitxue. Nik berdin jarraituko dot, nere bila etortzen badia, ba bueno...

## Zergatik zara intsumiso?

**G**arai batean, gutxi batzu besterik ez ziren soldaduzkara joan behar hori dudatan ipintzen zutenak. Batzuek gustura, etxetik irtezeko lehen aukera suposatzen zuelako; edo, zergatik ez?, zerbait ikasteko aukera suposatzen zuelako. Gehiengoa tradizioak agindu bezala, joan beharra zegoela eta joan, gustura ala ez.

Azken finean, 12 hilabete etxetik kanpo militarren agindupean, hauen autoritarismo eta zapalkeria jasaten. Irain, zigor eta umilazio ugari. Armak eskutan hartu eta etsaia suntsitu. Eta guzti hau pasa ondoren etxera, "gizon" bihurtuta.

Zorionez, gaur egun, gizartean soldaduzkarekiko ikuspegi kritikoagoa dago. Bere betebeharra zalantzan jartzten da behin eta berriz, ejerzito eta militarismo era guztien aurkako joera gero eta zabalagoa delarik.

Hau horrela izanik, eta haserako galderari erantzun bezala, beste galdera hau egin nahi nuke nik: SOLDADUZKA ZERTARAKO?

Ez dut uste soldaduzkak ezertarako (ezer onerako behintzat) balio duenik. Bere helburu bakarra gazteak gerrarako prestatzea da. Fusil edo arma bat hartu eta etsaia anikilatzea. Eta hau dena, noski, edozein ejerzitok esigitzen duen erabateko "sumisotasun"az eta gazteen nortasuna ezeztatuz. Soldadu zaren bitartean aginduak obeditu eta jasan beharrekoak jasan.

Bederatzi hilabeteko denbora galteza, eguneroko eginbeharrak alde batera utziz. Eta zertarako? Behintzat militarrek eman nahiko lioketen helburua beteko balu! Baina hori ere ez, ez baitut uste gerrate batean soldaduzka


egiten dauden gazteez osaturiko "ejerzito" batek zer egin haundirik izango lukeenik. Hori "profesionalen" gauza da.

Esan ditudanak soldaduzkari uko egiteko nahikoa arrazoï iruditzen zaizkit, eta nik hala egin nuen. Nire burua objetore deklaratu nuen, "Objeciòn colectiva" delakoa eginez, hau da, soldaduzkari ezetz zuzena emanaz.

Bada hor beste aukera bat ere. Kontzientzi eragozpena zela eta soldaduzkari uko egiten zieten gazteei, nolabaiteko eginbeharra eman beharra zegoen. Ezin, noski, ezer egiteke utzi! Eta horrela, Ordezko Zerbitzu Soziala (P.S.S) sortu zuten.

Helburua: Gazte objetoreak nolabaït zigortu, soldaduzka bera baino luzeagoa den (13 hilabete) zerbitzu zibil bat ezarriz. Horretarako han eta hemen, hauek betetzeko bezalako lanak aurkitu behar.

P.S.S-a objeioari aurre egin nahirik sorturiko neurri bat besterik ez dela uste dut. Ordezko zerbitzu eraren bat sortu behar, eta hau asmatu zuten. Baina, ez al da tristeza horretarako langile profesionalen esku utzi beharreko lanpostuak betetzen ibili beharra?.



MANU IZAGIRRE

### Fotero

OKINDEGIA  
OPILEDGIA

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

### Kide

ILEAPAINDEGIA

☎ 74 00 69  
San Frantzisko, 19 1 esk.

### GARAY



HARATEGIA  
URDATEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

### ORAIKO

SAN FRANCISCO 25  
ELGOIBAR

### ZALDUA ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

### HISPANIA



### ZURICH

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Arte kale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

# TXURI BELTZ

Taberna

San Frantzisko 38



## Intsumisoa al zara? Zergatik?



### AGURTZANE BILBATUA

34 urte, tabernaria

Egingo nintzan intsumiso. Bueno, ni autoinkulpatu egin naiz intsumisoekin batera. Ondo dago intsumisoei laguntzea.



### GORKA PRADO

16 urte, ikaslea

Beharbada objetore egingo naiz. Intsumisoek zail dute administrazioan lan egitea. Nik, agian, Ordezko Zerbitzu Soziala egingo nuke.



### OSKAR URIBIA

17 urte, ikaslea

Ez naiz baina zerbait egiteko asmoa badaukat. Mementuz prorrogekin nabil baina ez dot uste soldaduzkara jungo naizenik.



### AMAIA EZENARRO

28 urte, irakaslea

Ez nakixan intsumiso egin leikenik. Neska izanda ez dot sekula pentsatu, baina ez nao aurka; agian bai. Ez diot neure buruari sekula planteatu.



### JOSEBA PANIZO

37 urte, langabetua

Nik ez daukat soldaduzka egina libratu egin nintzelako gaisotasun bategatik, baina hala ere insumisioaren aldekoa naiz.



### MIGUEL RICO

23 urte, elektrizista

Nik soldaduzka egin nuen. Insumiso egitea burutik pasatu zitzaidan baina lanagatik ez zitzaidan komeni mementu hartan. Hobe ez joatea, baina...

**LANBROA**

elgoibar

**DEKORAZIOA**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

**ANCHUSTEGUI** S<sub>a</sub>

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
20870 - ELGOIBAR  
Gipuzkoa

## ■ ADORE ekimenaren aurkezpena Elgoibarren

Datorren hilaren 20an, asteazkena, ADORE herri ekimenaren aurkezpena egingo da Kultur Etxean, iluntzeko 7,30etan Errotatxoren eskutik. ADORE deituriko herri ekimena drogomenpekotasunari aurre egiten diharduten gizarteko talde ezberdinetako pertsonen osatzen dute, abokatu, kazetari, irakasle... ADORE droga trafikoaren salaketa eta drogen auziaren normalizaziorako eztabaida bultzatzeko sortu zen. Lehen ekintza Donostiako Auzitegian akusazio partikular modura kereila aurkeztea izan zen. "Arrazoirik gabe- diote ADOREkoek- kereila atzera bota dute". Hori dela eta, bide judizialek jarraitzeaz gain, gaia kaleratzeko zenbait herri ekimen antolatu dituzte. Elgoibarren egingo duten aurkezpena ekintza horietariko bat da.

## ■ Gotzaina Elgoibarren

Jose Maria Setienek, Donostiako Gotzainak, San Bartolome parrokiaren bisitaldi pastoralera egingo du astean zehar. Bisitaldiaren azken ekitaldia, datorren igandean, hilak 17, eguerdiko 12,30etan ospatuko den meza izango da, bertan Gotzaina bera buru izango delarik. Ospakizunean 50 gazteri sendotza sakramentua emango die Gotzainak.

## ■ Gazteentzako trebetasun sozialen programa

"Hodei" astialdiko taldeak gazteei zuzendutako trebetasun sozialen programa jarriko du martxan datorren maiatzetik aurrera. Programa honekin gizartean behar bezala moldatzeko gaitasuna eman nahi zaio gazteari. Lehen saioa hilaren 21ean izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Izena eman duten guztiei bilerara dei egiten zaie saioen egunak finkatzeko. Izena emateko 74 00 79 zenbakira dei daiteke.

# Expotecnia 94, teknologia feria aurkeztu dute IMHan



Erreminta Makina Institutuan ICEX-ek (Atzerriko Komertziorako Institutu Espainiarrak) antolatzen duen Expotecnia 94 erakusketa aurkeztu zen joan den hilaren 7an. Aurten Pekinen burutuko den feria honen aurkezpenean, Erreminta Makinaren Fabrikatzaileen Elkarteko ordezkariak eta Euskal Herriko enpresak izan ziren, tartean Elgoibarko Danobat.

Espainiako produktu industria- len urteroko erakusketa da Expotecnia. Aurten, ICEX eta elkarte esportatzaile ezberdinen arteko

akordioaren ondorioz, Chinan egitea erabaki da erakusketa. Izan ere, China bultzada ekonomiko eta industrial garrantzitsua bizitzen ari da aurten. Expotecnia erakusketa Asian izango da lehen aldiz aurten, Hego Amerikan, Afrikako ipar aldean eta European burutu ondoren. Erakusketa uztailaren 28tik abuztuaren 2ra bitartean izango da Chinako International Exhibition Centre aretoan. Beste industria sektore batzuetako enprekin batera, erreminta makina sektoreko 28 enpresa egingo dira bertan.

## ■ Udal Txistulari taldea Donibane Garazin

Datorren igandean, hilak 17, Udal Txistulari taldea Donibane Garazin izango da Euskal Herriko Txistulari Elkarteko batzar orokorrean parte hartzeko. Goizean izango da batzarra eta bazkalostean Iñaki Urtizberearen zuzendaritzapean kontzertua eskainiko dute. Gaur egun Euskal Herriko Txistulari Elkarteko idazkaria, Jose Inazio Sarasua elgoibartarra da eta elkarteak dagoeneko 1750 bazkide ditu.

## ■ 37 emakume intsumiso dagoeneko

Kalera Emakume Gazteen Taldea emakumeak intsumiso egiteko kanpaina burutzen ari da. Orain arte Elgoibar eta inguruko herrietako 37 neska intsumiso deklaratu dira, "kanpainaren emaitza guztiz positiboa" izanik. Kalera Emakume Taldeak dei egiten die intsumiso egin diren emakumeei ejerzitoak suposatzen dituen baloreen aurka aktiboki lan egin eta, Elgoibarko Talde Antimilitaristak burutuko dituen ekintzetan parte hartzera.

# Zilarrezko garaikurra jasoko dute 23 odol emailek

Odol Emaileen Elkarteak Gipuzkoa mailako asanblada egingo du Deban igande honetan, hilak 17. Asanbladan hogeita hiru elgoibartarri zilarrezko garaikurra jarriko zaie 25 alditan odola eman izanagatik. Igande goizerako egitarau berezia prestatu dute. Goizeko 11etan txistulari eta tritikilarien laguntzaz harrera egingo zaie bazkideei. Ondoren meza eta asanblada ospatuko dute. Eguerdian anaiarteko bazkaria izango dute eta bazkalondoan, zenbait opari zozketatuko dira bazkideen artean. Giroa alaitzen Deba-ko Fan-Baltz taldea arituko da. Bazkariaren zenbatekoa 2.200 pezeta-koa izango da. Asanbladara joateko autobusa King-Kong-eko zubitik irtingo da goizeko 10,30etan.

## Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 22, Gipuzkoako Odol Emaileen elkar-



ko talde bat herrian izango da ohiz-ko odol ateraldiak egiteko. Eginkizun horretarako eta odol emaile izateko ere, Pedro Migel Urruzuno 8an duten lokaletik pasa daiteke. Harre-  
ra, iluntzeko 8ak arte izango da. Elgoibarko Odol Emaileen elkar-

teak herritar guztien artean zabaldu nahi du deia, guztion laguntza beharrez-  
koa izanik. Elkarteak, odol emaile izateaz aparte, elkarteko bazkide babesle ere izan daitekeela jakinarazi nahi du.



# 2.000. BAZKIDEA

## MORKAIKO M.E.

eta **ASTIGARRAGA** Kirolak, **IRIONDO** Kitrolak, **MUXI** Kirolak, **UZURI** optika eta **IKUS** optikaren arteko akordioa.

**Bazkideak %10eko DESKONTUA mendirako materialetan**

Egin zaitetz bazkide eta ekarri azpiko txartela MORKAIKOra. Errosario 17. ☎ 74 02 97



**IZEN -ABIZENAK** .....

**ZUZENBIDEA** ..... **TEL.** .....

**JAIOTEGUNA** .....

**KUOTA:**  Haurra 500 pta.  
 Nagusia 1.000 pta

**BEHARREZKOA!**

**BANKUA** ..... **KONTU ZENBAKIA** .....

## Garbiñe Del Hoyo:

### “Pertsona naturalak, berez dira dotoreak”

Orain dela bost urte inguru sartu zen Garbiñe Del Hoyo diseinu munduan. Marketing ikasketak burutu ondoren “diseño de moda” egiteari ekin zion Donostiako Lanca eskolan. Urte eta erdi aritu ondoren kirol jantziak diseinatzen, master bat egitea

erabaki zuen. Hari esker Alemaniako Düsseldorf hirian izandako nazioarteko ferian parte hartzeko aukera izan zuen. 26 urterekin lehen saria irabazi du lenzeria arloan. Oraindik, emaitzarik ikusi ez duen arren, oso pozik dago Garbiñe irabazitako sariarekin.

- Nola aukeratu zintuzten lehiaketan parte hartzeko?

- Europa mailan egiten da eta lehenik eskolak aukeratzen dituzte. Gero, eskola bakoitzak erabakitzen du nortzuk joango diren euren ordezkari bezala. Nire eskolatik hiru joan ginen.

- Espero al zenuen irabaztea?

- Esperantzak beti daukazu, ziurtasunik ez izan arren. Feria ospatu baino lehen bidaltzen dira diseinuak eta epaimahaiak aurrez erabakitzen du irabazlea nor den. Gu iritsi ginenerako erabakita zegoen, baina guk pasarelan jakin genuen, desfilea amaitzean.

- Nolakoa da saritutako diseinua?

- Terziopelo urdinezko body bat da, setazko organzazko kamisola batekin. Kolorezko detaile batzuk ditu, zinta gorri eta doratuekin. Kamafeo batzuk dauzka, kobrez eginak esmalteko teknika erabiliz. Oso artesanoa da.

- Zergatik aukeratu zenuen barruko arropa?  
- Bost aukera nituen. Egunekoa, arratsaldekoa, gauekoa, gizonetzkoena eta barruko arropa. Inoiz ez nuen lentzeriarik egin eta gogoia neukan.



“Orain koloreekin esperimentatzen ari naiz. Gauza berriak sortzen. Diseinua ere artea da”

- Zein ehunekin atsegin duzu lan egitea?

- Estiloaren arabera, edo eta modelo, baina beti ehun naturalak, sintetikorik ez.

- Zein da zure diseinuen ezaugarria?

- Kolorea beharbada, baina oraindik ezingo nuke ezer zehatzik esan zeren ez naiz gauza espezifiko batera dedikatzen. Orain esperimentatzen ari naiz, dantarik egiten dut, kirol arropa, lentzeria, haurrentzat,... Mementuz jolasten nabil, inbestigazio lanean, koloreak nahasten eta gauza berriak sortzen, diseinua

ere artea da. Beranduago etorriko da beharbada espezializazioa.

- Zertan datza dotoretasuna?

- Niretzat, nortasun handikoak eta naturalak diren pertsonak, berez, dotoreak dira. Jantzkerak ez du hainbeste pisurik.

- Garrantzitsua al da moda jarraitzea?

- Ez, ezertako ez. Gaur egun, gainera, dantarik eramaten da. Nahikoa da gustua izatea erropa batzuk beste batzuekin konbinatzeko. Orain asko hitz egiten da krisiaz, baina jantziak ez dira mer-

ketu eta nik jendea, beti bezala ikusten dot jantzita.

- Zein disenatzaile gustatzen zaizu gehien?

- Moschino, batez ere, koloreak eta gauzak nola nahasten dituen eta Valentino, dotorea da, oso ona iruditzen jata.

- Zer deritzozu, “top-model”ei buruz?

- Pena bat dela, inportantzia gehiago edukitzea jantziak berak baino, desfileetan jantzia daraman pertsonak. Badirudi, arropen kategoriarik ez dutela.

- Nola ikusten duzu Euskadi diseinu mailan?

- Maila bat lortu da. Zerbait mugitzen ari dela dirudi. Bestalde, instituzioak hasi dira laguntzen eta hori ondo dago.

- Konpetentzia handia al dago?

- Bai, asko gera eta. Baina neurri batian ona da konpetentzia. Zure buruari gehiago exigitzen diozu eta askotan produktu hobiak ateratzen dira.

- Zertan ari zara orain?

- Gasteizen desfile bat izango dugu. HIESa edo SIDA da gaia. Horretan dihardut lanean. Gero, Bilbora “Expo-Consumo”ko feriera ere joango naiz. Honetaz gain, bilduma solteak ere banabil egiten.

MYRIAM ALDAZABAL

# *Txiki* BARREN


O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 2. GEHIGARRIA



**B**inakako etxetxo imaginarioak egiten, borroka ludikoen babes eta erasorako elementu gisa erabilitako lauki luze, hiruki, errobera eta bestelako forma bigunak; gora igo, edonola, eta jauzi egin, minik hartzeko arriskurik gabe; kuxin erraldoi baten atzean izkutatzen den mutikoaren begirada... Hiru urteko neska mutilak dira. Bistan da eskolara joateko nagiak gutxitan izango dituztela. Pilar ikastetxera joan ginen eta bertan, kolore biziz jantziriko gela batean hobekien egiten dakiten hortan ikusi genituen: jolasten.

## *Esaera zaharrak*

Goizean zeruan hodei gorriak agertzen badira, gauean euria egingo du. Konproba ezazu esaera hau egia ala gezurra den.



**GOIZEKO LAINO GORRI GAUEKO ITURRI**

## Jakitunen eskutik

### Nola indartu haurren autoestima

**N**orberaren onarpena izakerak duen alde garrantzitsuenateriko bat da. Gehiago esango nuke, bere irudia onartzen ez duen ume bat beste bat baino ezkorragoa izango da, bere burua zulo sakon batean ikusten du edonork baino errezago. Autoestima, beraz, gai oso garrantzitsua da heziketan.

Batzuetan helduok ez gara konturatzen ume bati egiten diogun minaz mespretxuzko hitzak esaten dizkiogunean. Horregatik sarritan honelako esaldiak erabiltzen ditugu: "zeinen leoa zaren", "ez duzu ezertarako balio", "ez zara inoiz aldatuko" e.a.

Txikiek, dena hartzen dute, ona zein txarra, eta xehe-tasun guzti hauek barruan geratzen zaizkie, astiro astiro. Honela norberaren izakera moldatuz doa. Bere buruaz ziur dagoen umea, bere gaitasunean konfidantza duenak badaki nahi duena egin dezakeela. Oso lasai bizi da eta gauza bat ez bazaio ateratzen, lortu arte borrokatuko du.

Bere buruaz ziur ez dagoen haurrak, ordea, ez dauka konfidantzarik bere gaitasunean. Bere buruan bueltaka betiko pentsaerak daramatza: "ezin dut egin", "hanka sartuko dut", "nitaz barre egingo dute". Ondorioz, arazoei aurre egiteko beldur da, eta gauzak egin gabe uzten ditu. Lagunak egitea ere kostatzen zaio.

Honen aurrean, zer egin dezakegu irakasle eta gurasook?

- Umea zerbait egiten saiatzen ari denean, lagun diezaigun honako esaldiok

esanaz: "zuk ahal duzu", "ez kezkatu, aterako zaizu".

- Gure arreta eskatzen duenan, lanpetuta egon arren, dena utzi eta berarekin egon minutu batzuk. Honela, onartzen eta maitatzen dutela ikusiko du, eta besteentzat pertsona garrantzitsua dela.

- Gurasoei dagokionez, eskolako gaietaz arduratzen garela ikusten badute, eurak gauzak ondo egiteak pozten gaituela sentituko dute. Zerbait ez bazaio ondo ateratzen, pazientzia! Saiatu laguntzen eta kontuz esaten dugunarekin, lehen aipaturiko hitzek ez baitgaituzte inora eramaten. Ahalegindu arren ez bazaio ateratzen, aztertu ze arrazoi izan ditzakeen gaia ez ulertzeko eta hitzegin irakaslearekin, denon artean arazoa konpontzeko.

- Bazkaltzeko eta afaltzeko orduan konta iezazkiezu umeei uler ditzaketen gaiak eta egunean zehar gertatu zaizkigunak. Era honetara, haurra familiako kide sentituko da. Erabakiak hartzen ere utzi, familiako kide ezezik, arduradun ere hasiko baita sentitzen.

Sariak eta kontsiderazioak, jatea eta arnasa bezain garrantzitsuak dira. Begirada eta hitz goxoak, esaldi atsegin bat, barretxo bat jasotzen baditu, besteek maite dutela konturatzeaz gain, berarengan konfidantza ere hartzen doa. Aldearantziz, besteengandik hitz zakarrak baino ez baditu entzuten uzkurdura, herabetasuna eta seguritate eza agertzen dira umearengan.

Guzti hau sarritan erabiliko bagenu, umea zoriontsuago haziko litzateke.



**MONTSERRAT IRAOLAGOITIA**  
PSIKOLOGOA

## Ze iritzi daukazu *maitemintzea* ri buruz?



"Ondo dagoela iruditzen zait, oso pozik sentitzen zarelako eta sentimendu polita delako bi pertsona elkar maitatzea."

ESTIBALIZ MARCOS. 13 urte



"Nire iritzia ona da. Maitemintzean bihotza 100era ipintzen zaizu eta ahoan korapilo handi bat."

EGOITZ MORA. 11 urte.



"Neri polita iruditzen zait nire ahizpak maitemindurik dardelako eta telefonoz hitzegiten dute."

EIDER AZKUNAGA. 9 urte

**Haritz iriondo****7 urte**

1. Elgoibarren. Lagunekin urten naiz kalera jolastera eta egun batzuetan gurasuekin.
2. Batzuetan nere albulan norbait hiltzen dala ikusten dot eta gero "Quien sabe donde" kuak etortzen diala.
3. Dendetara lapurrak ez sartzeko ertzainak egotia.
4. Bai, bost aldiz ere! Joku bat dago, "pares o nones" eta irabazten dabanak bestiari patxo bat eman bihar dio.
5. Neretzat jotzia.
6. Boligrafua ze hobeto ikusten da, gainera oin badaude batzuk borrotzen diazenak geizki urtetzen bajatzu.
7. Bakerua, Charles Bronson bezela.
8. Pastela!!!

## Galde debalde

1. Non pasa dituzu Aste Santuko oporrak?
2. Gogoratzen al duzu ametsen bat?
3. Ze eskatuko zenioke alkateari?
4. Sekula eman al dizu neskaren batek muxu bat?
5. Zein da zigorrik txarrena?
6. Arkatza ala boligrafoa?
7. Pelikuletako zein pertsonaia izan nahi zenuke?
8. Zapora garratza ala gozoa?

**Igor Torres****12 urte**

1. Madrilera jun naiz gurasuekin. Zoo-an egon naiz, museoak ikusi ditut, Segovia eta Aranjuezen ere egon naiz...
2. Kanean, burusoila nintzelako barre egiten zidaten.
3. Patinetean ibiltzeko "U" bat eta lantegietarako depuradora bat, erreka garbitzeko.
4. Bai, "al pimiento colorado" jolasean. Nahiago dot neskek ematea neri nik eureri baino.
5. Gela guztiaren aurrean kantzontzilotan jartzea.
6. Boligrafoa. Erosoagoa da eta hobeto mugitzen da. Harkatzari punta apurtzen zaio.
7. Kevin Kostner "El principe de los ladrones" pelikulan.
8. Gozoak.

## Zer da... *beldurra* ?

**ANDREA ZUBIAUDE 6 urte**

"Bakarrik nagoenean sentitzen dudan gauza arraro bat."

**EÑAUT ADANBARDI 6 urte**

"Dinosaurio batek jaten nauenean igartzen dudana."

**JUDIT MURCIA 10 urte**

"Neretzat lagun txar bat da, arazo bat daukazunean ez dakizu zer egin eta ariman geratzen zaizu."

**INES SEGURA 10 urte**

"Sartzerakoan kili-kili batzuk ematen dizkizu. Oso txarto pasatzen duzu. Kostata joaten da zure gorputzetik."

**UNAI SEGUNDO 9 urte**

"Frankenstein eta Drakularen pelikuletan lehehengo urduritu egiten zara, gero txuritu eta azkenian, ileak tentetzen zaizkizu."

**ASIER ATRIO 9 urte**

"Beldurra dibertigarria da. Bakarrik nagoenean etxean oso pozik nago. Txikiek uste dute monstreak existitzen direla."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da elgoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?

.....  
 .....?



**BELEN AGEA**

"Orain krisia dagoenez nik lanpostu gehiago jarriko nituzke. Beste polikiroldegi bat ere egingo nuke, estali gabeko pistina haundi batekin eta doan izango litzatekeena. Jendeari edukazio gehiago izaten erakutsiko nioke, istilu gutxiago egon daitezen."

**OIER IRAZABAL**

"Udaltzain gehiago ipiniko nituzuzke drogen arazua mozteko. Polideportibuan pistinak irekiko nituzuzke igandetan ere. Umientzat 'U' bat ipiniko naban patinetiakin ibiltzeko eta futbolerako kanpo txiki bat, ze Mintxetan ez digute jolasten lagatzen."



## 3. Asmakizunak:

■ Ahorik gabe txistuka, hankarik gabe korrika, zuri aurpegira putz egin eta zuk ikusi ezin.

Zer da?.....


■ Kriseilu piloa goian zintzilik, oso politak daude inork piztu barik.

Zer da?.....

■ Puntan punta bat atzean zulo bat

Zer da?.....

## 4. Zein bide aukeratu behar duzu gereziak eta marrubia hartzeko?



Erantzunak hurrengo astean aurkituko dituzu "Merkatu Txikia"ren orrialdean



## Jose Luis Egaña Kotxe mekanikoa



- Zenbat denbora daramazu lan honetan?
  - ▶ Fijo hamaika urte daramatzat.
- Egunean zenbat ordu egiten duzu lan?
  - ▶ 8-9 ordu, daukagun lanaren arabera izaten da.
- Kotxea gasolinaduna ala diesela?
  - ▶ Asko ibiltzeko diesela, baina normal ibiltzeko gasolinaduna.
- Eguneko zenbat auto konpontzen dituzue?
  - ▶ Ezin da esan, lanaren arabera.
- Bazkalondoan kaferik?
  - ▶ Bai, beti.
- Kotxe marka bat?
  - ▶ Opel bat daukadanez, Opel-a.
- Kotxez egin duzun bidaiarik luzeena?
  - ▶ Castellon aldera.
- Kotxean azkar ala motel ibiltzen al zara?
  - ▶ Normal.
- Futbol talde bat?
  - ▶ Erreal.
- Zure lana gustatzen al zaizu?
  - ▶ Bai, asko.
- Mendia ala hondartza?
  - ▶ Hondartza.
- Nola moldatzen zara hobeto, euskaraz ala erderaz?
  - ▶ Hobeto erderaz.
- Zein sasoitan izaten duzue lan gehiago?
  - ▶ Udaran.
- Zenbat pertsona daude lanean zurekin?
  - ▶ Guztira bost pertsona gara.

MAITE IRIONDO

## INTSUMISIOA

### DOINUA:

Zamorako surgintza

Hogei urte bete eta deia soldadutzarako; bada hainbeste kako, denen ustez denboraren galtze hutsa delako. (BIS) Hau dela ta intsumiso Españan bada nahiko, gehiagotu beharko, soldaduzkan inor ere ez baita bizi bapo. (BIS)

“Hiru katu soilik dira” esaten zuten lehen, gehitzen doa dena den, ehun bat mila iadanikan izango dira aurren. (BIS) Orain arte gartzelakin zigorra izaten zen, segi aurka egiten, ejerzito profesional ein dadin behingo baten. (BIS)



ARNAITZ GORRITI

B  
E  
R  
R  
I  
T  
O  
T  
A  
N

*Apirilak 7an hil zen ASUNCION GABILONDO ETXEBERRIaren ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, eta samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.*



## Udalekuak 94

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko

Foru Aldundiek 7 eta 13 urte bitarteko neska mutilentzako udako kanpamenduak antolatu dituzte. Izena emateko epea irekita dago eta azken eguna hilaren 22a izango da. Eginkizun horretarako Kultur Etxeko kultur zerbitzura jo goizeko 11etatik 1era bitartean. Aukerak asko eta anitzak izango dira, guztira 20 leku ezberdin, ezaugarri eta iharduera ugarirekin. Hizkuntzari dagokionez, bi aukera egongo dira: euskara hutseko txanda eta txanda elebidunak.

Bestetik, udaleku espezializatuak antolatu dira 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Kasu honetan Foru Aldundian bertan eman behar da izeña, (Gipuzkoko Enparantza z/g Donostia) edota 43 00 30 zenbakira deitu.



## Udal liburutegia

Gaur egun 16.000 liburu eta 42 argitarapen daude. 289 metroko azalera, 24 plaza daude haurrentzat eta beste 40 helduentzat. Ikasteko gela bat ere badago, 16 pertsonantzako kabiarekin.

Hemerotekan egunkariak, aldizkariak eta zenbait boletín aurki daitezke, lanpostuen eskaintzak ere jasotzen direlarik. Errebistak, komikiak eta bestelakoak irakurtzeko sei jarleku eta mahai handi bat daude eta fonoteka bat ere bada, bost pertsonantzat egokitua. Liburuak eta C.D-ak berdin berdin mailega daitezke, hamabost eguneko epea ematen delarik itzultzeko. Herriko argazki artxiboa ere bertan dago.


## Herriko Antzokia laster prest

Iaz hasi ziren Elgoibarko Herriko Antzokia berriztatze lanak, ez baitzituen beharrezko baldintzak betetzen. Zine emanaldiak arratsaldetan bakarrik izaten ziren, insonorizazio arazoak zirela eta. Gauetan ezinezkoa zen inolako ikuskizun edo jaialdirik antolatzea bertan. Herriak behar bezalako zerbitzua izan zezan, proiektu bat burutu zen. Antzoki berri bat eraikitzea oso garesti ateratzen zenez, Kapitól zaharrean beharrezko egokitze lanak egitea erabaki zen. Mementu honetan, obrak azken fasean daude eta, dirudienez, laster Herriko Antzokia martxan egongo da.

Lau arlo nagusitan banatzen dira egokitze lanak. Batetik, aretoa aklimatatzeko sistema bat jarriko dute. Neguan epel eta,

gustura. Bigarrenik antzokia insonorizatuko da. Honi esker, gauetan ere izango da edozein ikuskizun egoteko aukerarik. Eskenatokiari 8 metroko sakonera emango zaio, antzerkia behar bezala egin ahal izateko gutxieneko espazioa. Azkenik, Foru Aldundiaren diru-laguntza jasotzeko Herriko Antzokiak 400 jarleku izan behar ditu, gutxienez. Kopurua ugaritzeaz gain, jarlekuen arteko espazioa ere handituko da. Elbarrituek, sarrera eta irteera berezi bat izango dute eta euren beharretara egokitutako komunak ipiniko dira.

Proiektuaren haserako aurrekontua 80 milioiaren artean, denbora guzti honetan sortu diren arazoak medio, 30 milioi iguera egon da.



## UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Amagoia Ruiz de Gauna

▲ **ADINA:** 24 urte.

▲ **LANPOSTUA:** Gizarte laguntzailea.

▲ **FUNTZIOA:** Ongizate sailera heltzen diren eskaerak jaso, informazioa eman, balorazio bat egin eta niri dagozkidan kasuak atenditzen ditut.

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1993tik.

▲ **LANAREN ALDE ONA:** Jende asko ezagutzen duzu eta gauzak ondo irteten direnean satisfazio handia lortzen da.

▲ **ALDE TXARRA:** Jendea gehiegi ezagutzen duzu eta herrian bizitzean, gero, kalean ikusten dituzunean ezin duzu zure lana alde batera utzi, pertsona horiek beren arazoekin identifikatzen dituzu. Lan burokratiko guztia ere ez zait batere gustatzen.


## Olaso Dorretxea

- Olosotarren lehen dorretxea Olosoko muinoan, monastegitik hurbil omen zegoen kokatuta.
- Gonzalo Yañez de Zurbanok markinarrak, XIII. mendearen erdi aldean eraiki zuen bere dorretxea monastegiaren babesean, erret aginduz Olosoko Monastegiaren patronatua lortu zuenean.
- Gonzaloren alaba eta oinordekoa zen Maria Gonzalez de Olaso, Fernan Yañez de Ganboarekin ezkondu zen.
- Ganboatarrak, Erdi Aroko hiru mendetan Euskal Herrian eman ziren bandoen arteko borroka odoltsu eta ankerrean parte hartu zuen bando bateko leinu buruak izan ziren.
- Ganboatarrak Olosotarrekin ahaidetu ondoren Kalegoenengo (Plaza Haundia) zubiko arkuaren aurrealdean eta Deba ibaiaren ondoan eraiki zuten beren dorretxea.
- Dorretxe hau, Ahaide Nagusien beste hainbat dorretzekin batera, erauzia izan zen Enrike IV.a, Gaztelako errege, eta Gipuzkoako hermandadearen aginduz jauntxoek eragindako gehiegikeriak mozteko.
- XVI. mendearen lehen erdi aldean, Martin Ruiz de Abendañok Kalegoengo Dorretxea berreraiki zuen.
- 1617an gertaturiko sute ikaragarri baten ondorioz, dorretxea aski kaltetuta geratuko zen, ziurrenez. 1629an kontzejuak hondakinak erosi zituen eta bere harlandu, harriak eta

materialeak Parrokia berria eraikitzeko erabili ziren.

- Elgoibarren bizi izan zen etxe honetako azken jauna Juan Lopez de Ganboa izan zen. 1516an hil eta Olosoko Monastegian hilobiratu zuten.
- Honen ondorengoak, Arabako Villarrealen kokatu zuen maioraizgo egoitza. Belaunaldi batzutara, familia honen egoera ekonomikoak behera egin zuen, lurrak, baserriak eta gainontzeko jabetzak saldu beharrean aurkitu zirelarik.
- Gaur egun, Plaza Handiko zoluan (harlauza gorriz), Udaletxe parean Olaso Dorretxearen neurriak, oinplano mota eta ormen zabalera azter daitezke.

PELLO ARRIETA



Olaso Dorretxea argazkian ikus daitekeen maketaren antzerakoa omen zen.

## Luis Ansola

Txistularia (1917-1982)



ARAGO

- Anaiekin osatu zuen taldean, Luisek silbotea jotzen zuen.
- Saririk irabazi zuten baina beraien helburua txistularitza eta Euskal Herria gora jasotzea zen.
- 1980an omenaldi bat egin zitzaient Donostian. Konstituzio enparantzan 110 txistularik jo zuten Ansolarren omenez, J.M.Gonzalez Bastidaren (Euskal Herriko Txistulari Elkarteko Ohorezko Zuzendaria) zuzendaritzapean. Zilarrezko domina bana eman zitzaient. Pepe Etxanizek, Luis Ezenarrok, Sebastian Ubiriak eta Sabino Sorondok Donostian bizi ziren elgoibartarren izenean zilarrezko bandeja bat oparitu zieten.
- 1982an J.I.Ansorenak suite bat konposatu zuen Ansolar anaien omenez. Obra lau mugimendutan banatua dago, anaia eta instrumentu bakoitzeko bana. Hirugarren mugimendua eskaini zien Luis eta silboteari.



*Kafetegia*

JOSE ANGEL ZABALA

**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

**ITZALA**

*Edergintza*

San Frantzisko, 49 - 1 esk.  
Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR

## MOTZAK

### Eskubaloi taldearen desfilea Txixarron

Elgoibarko Eskubaloi Taldeko neska mutilek desfile bat antolatu dute Txixarro dantzalekuan. Desfilea, ostiral honetan, hilak 15, gauerdian izango da eta bertara hurbildu nahi dutenentzat, autobusak aterako dira 10etan eta 11etan King-Kong-etik. Desfilean Astore, Pitxintxu, Tik-Tak, Hermanas Elorza eta Karkizano etxeetako erropak erakutsiko dituzte.

### Masaje ikastaroa

Olaizaga kiroldegiak masaje ikastaroa antolatu du. Ikastaroa maiatzean hasiko da eta azarora arte luzatuko da. Klaseak larunbat goizetan izango dira 9etatik ordu batetara bitartean. Izena emateko Kiroldegira zuzendu edo 74 13 61ra deitu.

Bestetik, Olaizaga kiroldegiko 8 igerilari Arrasaten arituko dira hilaren 16an igeriketa txapelketa batean. Olaizaga kiroldegiko igerilariak dagoeneko zenbait txapelketatan izan dira eta honako hau, uda aurretik izango duten azkenetariko lasterketa da.

### Gatzaga Urkiola trabesia

Datorren iganderako, hilak 24, Gatzagatik Urkiolara mendi trabesia antolatu du Morkaikok. Prezioa 800 pezetakoa izango da bazkideentzat eta 1000 pezetakoa gainontzekoentzat. Irteera Plazatik egingo da goizeko 8,30etan.

## Judith Ajobita:

### "Orain arte lasterketa guztiak irabazi ditut"

- **Noiztik zabilta igeriketan?** - Hau hirugarren urtia da.
- **Nolatan sartu zinen igeriketa-  
ren munduan?** - Betidanik gustatzen zitzaidan. Horregatik igeriketan zerbait zegoen jakin nahi nuen. Esan zidaten igeriketa eskola bat zegoela eta urte bat zeramala. Monitorearekin hitz egin nuen eta taldeak egin zituztenean ni ere sartu nintzen.
- **Zer moduz dago eskola?** - Oso ondo. Ni oso gustura nago. Ondo pasatzen dogu.
- **Orain arte nola aritu zara lasterketetan?** - Nahiko emaitza onak izan ditut. Joan zen urtean bost txapelketatara joan nintzen eta bostetan lehena geratu nintzen. Herrietako txapelketak ziren, Eibar, Oñati, Bergara eta Legazpi.
- **Erraz irabazi al zenuen?** - Bueno, piska bat. Ez da hain erraza. Entrenatu egin behar da.
- **Zer entrenamendu egiten duzu?** - Astean hiru bider seietatik zazpiretara entrenatzen dugu. Dene-tatik egiten dogu, erresistentzia, bizkortasuna, progresioa...
- **Zer distantzia eta zer estilo duzu gogokoen?** - Gehien gustatzen jatan estiloa krola da. Normalian 100 eta 400 metro artian egiten dot. Distantzia bietan ondo moldatzen naiz baina agian erresis-



tentzia hobeto doakit.

■ **Zein lasterketatan aritu behar zara datozen asteetan?** - Orain dela bi aste 400 kroleko lasterketa egin dugu eta hemendik hiru astetara 200 mariposa egingo dugu. Hurrengo astean 200 krol daukat.

■ **Gipuzkoa edo Euskadi mailako lasterketaren batean parte hartuko al duzu?** - Orain arte ez, baina ahal bada bai. Gertatzen dena da, maila horretan denbora onak egin behar direla.

■ **Ikasketak eta igeriketa ondo konpajinatzen al dituzu?** - Bai. Igeriketara lagatzen didate joaten ikasketak ondo eramaten badituzte, eta orain arte ez dut arazorik euki.

■ **Igeri egiten jarraitzeko asmorik?** - Ez nago oso ziur. Oraingoz urtea bukatzea da asmoa. Seguraski jarraituko dut.

■ **Kirolzalea al zara?** - Igeriketaz aparte, futbola eta saskibaloia gustatzen jataz, baina ez nago ekipo batean igeriketan bezala. Denbora pasa bezala.

• Adina: 13  
• Itsasoa ala igerilekua? Igeri egiteko igerilekua, jolasteko itsasoa.  
• Arraina izatea nahiko zenuke? Ez. Uretan bakarrik ibil daitezkeelako.



# Classy



## Jaunartzetarako oparietan aukera

★ OPARIAK ★ FOTOKOPIAK ★ FAX PUBLIKOA ★ ENKUADERNAKETAK ★ ESKOLARAKO MATERIALA

SAN FRANTZISKO 56.

TEL.FAX: 74 02 40

ELGOIBAR

## magu's

ILEAPAINDEGIA

EDERGINTZA

San Roke 6 behe tel. 74 34 91

**MAHAINGURUA**

# Kirola eta profesionaltasuna

## **PARTAIDEAK**

- ➔ Alberto Iñurrategi (mendizalea)
- ➔ Andoni Imaz (futbolaria)
- ➔ Diego Garcia (atleta)
- ➔ Aitor Elkoro (pilotaria)

## **MODERATZAILEA**

- ➔ Arritxu Iribar

... eta ondoren

**APIRILAK 26 ASTEARTEA**  
IMHko areto nagusian  
arratsaldeko 7etan

**1993ko KIROLARI ONENAREN**

**SARI BANAKETA**

eta ARTEGIk emandako **SONY BIDEOAREN ZOZKETA**

ANTOLATZAILEAK: elgoi**BARREN** astekaria eta ELGOIBARKO UDALEKO KIROL ZERBITZUA

## Partaidetza eskasa mendiko bizikleta trabesian



■ ■ Eguraldi eskasa zela eta, uste baino jende gutxiagok parte hartu zuen.

**E**uria, hotza, haizea eta zirkuitu lokaztuari aurre egin behar izan zioten joan den igande goizean I. Mendi Bizikleta trabesian parte hartu zuten 37 txirrindulariek. Eguraldi txarrak zeharo itxuragabetu zuen lasterketa, partaidetza baxuaren eragile izan zelarik.

Bi zirkuitu izan zituzten korrikalariak aukeran, bata luzea, eta bestea, motzagoa. Mintxetako helmugan azpeitiar bat sartu zen lehena eta elgoibartarren artetik Xabier Oliveira izan zen lehen sailkatua. Zirkuituaren egoera

kaxkarrak erorketa ugari eragin zituen baina antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez zen kasu larrik gertatu. Antolatzaileek adierazi dutenez, partehartzaile gehienak kanpotarrak ziren, eguraldi txarra ikusita herritarrek ez baitziren animatu. Partehartzaile gazteena 13 urteko txirrindulari bat zen eta beteranoen artean 40 urteko txirrindulariak izan ziren.

Anekdotak gisa aipatu, lehen bi sailkatuak zimauro pila batera erori zirela, baina erorketa ederki gaingitu eta helmugan lehenak sartu ziren

## Eskolarteko jokuen eskualdeko fasea hasi da

Larunbatean, hilak 16, saskibaloiko eta areto futboleko eskualdeko faseari dagozkien partiduak jokatuko dira. Saskibaloian infantil mutilen mailako lau partidu jokatuko dira. Partiduak goizeko 10etan, 10,45etan, 11,30etan eta 12,15etan izango dira eta Arrasateko taldeen aurka jokatuko dira. Benjamin mutilen eta nesken kategorietan herriko finalistak aukeratzeke daude oraindik. Larunbatean saskibaloiko nesken finala jokatuko dute Ikastolan goizeko 12etan, Ikasgorri eta Pilar B taldeek. Areto futbolari dagokionean, Olaizaga kirolegian alebin mutilen kategoriako partidu bat jokatuko da goizeko 11etan Ikastrol eta Eibarko ordezkarien artean. 12etan alebin nesken mailan, Pilar Bk eta Eibarko taldeak jokatuko dute. Ikas Artaburuak eta Ikas Blai taldeek, berriz, Eibarren jokatuko dituzte infantil nesken eta mutilen kategoriari dagozkien partidu bana.

Gogoratu, hilaren 23an, areto futbolari dagokion etorrerako partiduak jokatuko direla. Finalerdiak hilaren 30ean eta maiatzaren 7an izango dira eta finala, berriz, maiatzaren 14an jokatuko da Beasainen.

## AGENDA

### ESKUBALOIA Kirolegian Igandea 17

12,00: Elgoibar - Jauja (Neskak)

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 16

16,30: Urki - Aloñamendi (2. erregionala)

18,45: Elgoibar - Alde Zaharra (2. erregionala, play-offa)

### Igandea 17

12,00: Elgoibar - Zumaiako (neskak)

17,00: Haundi - Sodupe

### FUTBITOA Urasandin Igandea 17

10,00: Gorri Beltz - Univ. de Chile Txirristaka - Pedrusko

11,00: Bar Roke - Ametsa Mimox- Kosakos

12,00: Arroak - G.Garcia Dinamo Kalimotxo - Karkis

## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

- Elgoibar 16 - Bergara 16 (Kadeteak)

- Elgoibar 32 - Urola 21 (Jubenilak)

- Elgoibar 9 - Usurbil 9 (Neskak)

### FUTBOLA

- Gernika 0 - Haundi 0

- Lagun Onak 3 - Elgoibar 3 (Neskak)

- Aitzgorri 1 - Elgoibar 3 (Kadeteak)

(Bigarren partean suspendidu egin zen)

- Fortuna 0 - Elgoibar 2 (2. erregionala)

- Elgoibar 2 - Mundaiz 1 (Jubenilak)

# Fosilen museoa prestatzen ari da Leizarpe

Elgoibarko espeleologia elkarteak, Leizarpe, Euskal Herriko paleontologia museoa osatzen ari da. Museoa Artetxeko Pedro Muguruza ikastetxearen lokaletan kokatu dute. Momentuz, beste lokalik ezean, bertan ezarri dute egoitza. Leizarpe elkarteko Jaime Martinez eta Txema Tobajas, azken honen ezagutzari esker katalogazio lana posible egiten ari dira, dabilta berau antolatzen.

**M**useoa irakunkorra izango da baina maiatza arte gutxi gora behera ez zaio ikuslegoari zabalduko. Esan digutenez, diru arazoak dira museoaren irekiera baldintzatzen dutenak.

Dagoeneko Euskal Herriko 300 bat fosil katalogatuta dituzte, eta beste horrenbeste daude mikroskopioaz aztertu eta katalogatzeke.

## Katalogazioa, lan mardula

Fosilak topatzeko mendira irteten eta, mailua eskuan, haitza pikatzen dute. "Tonaka haitz pikatu behar izaten dugu zerbait topatzeko". Euskal Herriko mapa geologiko bat abiapuntuatzen hartuta, aztarnategietara jotze dute. Behin harriak xaboiarekin garbitu eta mikroskopioaz aztertu ondoren katalogazio lanari ekiten zaio. Zerbait fosil berehala katalogatzen



■ ■ Ammonite honek 168 milioi urte ditu (Jurasikoa). Ezagutzen den handienak 2 metroko diametroa du.

dira, beste batzuek katalogatzeko, ordea, egunak behar izaten dituzte. Batzabeste zortzi ordu behar izaten dute fosil bat ezagutzeko. Dokumentazioa erabiltzen dute horretarako: Txema Tobajasek bildutako liburu eta aldizkariak. Txemak Espainian argitaratutako fosilei buruzko guzti guztia dauka gordeta.

Museoan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan topatutako fosilak egongo dira ikusgai. Informazio modura, dena den, Euskal Herrian oraindik aurkitu ez diren fosilak, trilobiteak esaterako, ekarri dituzte.

## Pieza baliotsuak

Fosil gehienak, itsasoko animaliak dira. Intsektu eta landareak

ere badaude. Aipatu, Euskal Herrian intsektu bat anbarrean aurkitu duten lehenak direla Leizarpekoak. Deskubrimendu garrantzitsua omen da, oso. Beste deskubrimendu garrantzitsua jurasiko garaiko (200 milioi urte) itsasoko zalditxo bat da (hipocampus). Espainian pieza bakarra omen da eta beharbada Europan ere bai.

Garai guztietako fosilak daude museoan. Zaharrenak mesozoiko, neozoiko eta kuaternariokoak dira. Paleozoiko garaikoak apenas dituzten. Jurasiko garaiko fosil asko dituzte, 200 milioi urtetik gorakoak.

Anekdota gisa, Txema tobajasek kontatu digu, kaleko marmoletan bost klase ezberdinetako koralk kataloga daitezkeela. Harrigarria!

# Ortueta

**ZAPATAK ETA POLTSAK**

San Frantzisko 2 - ☎ 74 04 95 - ELGOIBAR

INTERIORES

## BARRUEN DEKORAZIORAKO ESTUDIOA

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gremioen koordinakuntza
- Neurria egindako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55

## Laster, barne araudi bateratua Institutuak eta mekanikak

Eusko Jaurlaritzak atera berri duen arautegi bat dela eta, R.O.F (Reglamento de Organización y Funcionamiento) deritzon legea ikastetxeetako barne araudiaz arduratzen da.

Arreiturre institutua eta LHI (Lanbide Heziketa Institutua) barne arautegi amankomun bat burutzen ari dira irakas-kuntza ertainetan, laister eman-go diren aldaketak direla medio. Motzean, bi ikastetxe hauek bat izango direnez,

mementu hau aprobetxatzen da arautegi hau finkatzeko.

R.O.F delako araudiak puntu batzuk finkatzen ditu eta ikastetxe bakoitzak arau horien arabera bere iharduera propioa eratzen du; ondoren, ikuskaritza bere oneritzia eman behar duelarik. Hala nola, arautegi honen pilareak finkatuak daude; ikastetxeetako eritzieta-  
ra eramanak izango dira eta legeek guztiek onartuak behar-ko dute izan.

Lehenago aipaturiko bate-  
ratzea dela eta, hamasei pertso-  
na ari dira barne arautegi berri  
hau aurrera eramateko medioak

aztertzen, zentru bakoitzeko zortzi, hiru estamentutan banaturik: bi guraso, bi irakasle, bi ikasle, zuzendaria eta idazkaria.

Barne arautegi hau bere osotasunean burutzen denean estamentu bakoitzari aurkeztu-ko zaio eta hauen oneritzia jaso beharko du.

Baina esan behar da gaur egun ikastetxeek daramaten funtzionamendua ez dela gehiegi aldatuko; funtsean, aipaturikoa legeztatzean datza.

UBIKO IKASLEAK

## Zer iruditzen zaizu ROF-a?



**ANJEL UGARTEBURU**


52 urte, zuzendaria

“Beharrezkoa da edozein institu-  
ziok ondo funtzionatzeko, baina  
oso garrantzitsua da hiru esta-  
mentuek (guraso, maisu eta ikas-  
leek) onartutako normatiba bat  
izatea.”

**ANDRES ALBERDI**

43 urte, irakaslea

“Beharrezkoa da, edozein giza  
taldek bere funtzionamendurako  
normatiba minimo bat behar due-  
lako. Talante eta aplikapenean  
egongo dira desberdintasunak.”



**MAIDER ZUBIKARAI**

18 urte, ikaslea

“Beharrezkoa da baina ikasleak  
beti galtzekoak ditugu, lau zortzi-  
ren aurka garelako.”



## Etxebizitzak

PISU BAT ALOKATUKO nuke Elgoibarren.  
☎ 74 30 25 / 74 34 49  
Amaia

ETXE BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno Kalean.  
☎ 74 08 09 (3,30-7,30)

PISU BAT DAUKAT ALOKATZEKO San Roken.  
☎ 74 00 37

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut. Berdin zait Elgoibar, Mendaro ala Altzolan izan.  
☎ 19 29 31

ETXE BAT EROSIKO nuke DEBAN. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gauez 19,30etatik aurrera.  
☎ 74 04 59

## Bestelakoak

URREZKO BELARRITAKO BAT GALDU nuen duela 20 bat egun Parrokiatik Pedro Muguruza bitartean. Norbaitek topatu badu, deitu mesedez:  
☎ 74 09 53  
Angelita Lizundia.

URREZKO GURUTZEA ETA FERRA (herradura) bat GALDU ditut. Norbaitek aurkitu baditu mesedez deitu:  
☎ 74 04 51 Iratxe

Joan zen hilabetean kremaileradun karpeta beltz bat galdu zitzaidan Maalako parkean. Barruko kuadernoetan izena jartzen zuen. Norbaitek topatu badu, mesedez deitu:  
☎ 74 00 16 Txomin

Karitasek ERROPAK GORDETZEKO ARMAIRU BAT BAT BEHAR du.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

## Lana

KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut euskeraz eta erderaz. OHO edo BUPen.  
☎ 74 28 53 Alazne

Aizu etxeokandrei!, PERFUMERIA APAINKETA ETA KOSMETIKAN ari den frantziar multinazional batek EMAKUMEZKOAK BEHAR DITU. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera.  
☎ (948) 51 05 06

31 urteko neska bat naiz eta etxeok lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest nago.  
☎ 17 17 40

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko orduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00  
☎ 74 22 77 Iratxe

## Salerosketak

GARAJE BAT ALOKATZEN da, San Roke Sean.  
☎ 74 08 05

San Roke auzoan TERRENOAK SALGAI ditut.  
☎ 74 39 89 Rufina.

Ford Escort gorria saltzen dut. SS 0883 AJ.  
☎ 74 15 24

"Catusa" 4,20m.tako karabana bat salgai dut.. Ondo zainduta.  
☎ 74 12 95 Pello

Lehenengo jaunartzeko HABITO BAT SALTZEKO EDO LAGATZEKO daukat.  
☎ 74 27 66 (Tere)


FIESTA XR2-i SALGAI SS-AG. 40.000 km. Gutxi ibilia. Extra guztiak. Prezio egokia.  
☎ 74 33 51

GARAJE BAT SALTZEN da. Santa Ana 46. Arraiaduna. 1.600.000  
☎ 74 11 30 Rosa

**ATAL HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. IDATZI ZURE MEZUA ETA EKARRI BARRENERA.**

TESTUA.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala.756264  
Drogomenpekotasun Z..741008  
Odol Emailak .....743936

### GARRIAOK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....742158  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....11 85 05  
74 22 67  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57

## 15 OSTIRALA

### 18,30 ELKARRIZKETA-EZTABAIDA

#### Gaia: Intsumisioa

Partehartzaileak: Gartzelatik irten berri den intsumiso gazte bat, NIESE(Nafar Intsumiso eta Eragozleen Senideen Elkarte)ko guraso bat eta Alvaro Marcet, intsumisioen abokatua.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

### 22,15 ZINEA

"Madregilda" Espainia 1993.

Zuzendaria: F. Regueiro.

Aktoreak: Juan Echanove eta Jose Sacristan.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## 16 LARUNBATA

### 12,00 SAGARDO MOJOIA ETA TXORIZO PINTXOA

#### Ondoren MAUSITXA

#### TXARANGAREN KALEJIRA.

✓ Maalan

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

### 14,30 BAZKARIA TRIKITILARIEKIN

Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du.

✓ Maalan

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

### 18,00 MANIFESTAZIOA

Epaiketen aurka eta intsumisioen alde

✓ Maalan

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

## 17 IGANDEA

### 16,30 BIDEO EMANALDIA

"Piztiaren udazkenean" bideoa.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Gazte Asanblada

### 19,00 ROCK KONTZERTUA

ETSAIAK eta TAUPADA

✓ Oraiko behean

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

### 19,30-22,15 ZINEA

"Madregilda" Espainia 1993

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## 18 ASTELEHENA

### 20,30 ANDRAIZEREN BILERA

✓ Kultur Etxean.

### 22,15 ZINEA

"Madregilda" Espainia 1993

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## 19 ASTEARTEA

### 10,00 EPAIKETETARA AUTOBUSA

Aitor Esnaola eta Iban Esnaola intsumisioen epaiketara joateko autobusa.

✓ Institutotik aterako da.

Autobusa debalde izango da.

## 20 ASTEAZKENA

### 19,30 ADORE EKIMENAREN AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo

## 21 OSTEGUNA

### 19,00 GAZTEENTZAKO TREBETASUN SOZIALEN PROGRAMA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Hodei

Maiatzean zehar.

## 22 OSTIRALA

### 18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol Emaileen egoitzan. (P.M. Urruzuno 8).

### 22,15 ZINEA

"Akira" (Japonia)

Marrazki bizidunak.

Zuzendaria: K. Otomo.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## txandak

### FARMAZIAK:

16, larunbata: Yudego

17, igandea: Yudego

18, astelehena: Bidasolo

19, asteartea: Bidasolo

20, asteazkena: Bidasolo

21, osteguna: Bidasolo

22, ostirala: Bidasolo

### OKINDEGIA:

17, igandea: FOTERO

## ZINEA

### Madregilda

Regueirok Francoren irudi historikoa aztertzen du, ikuspuntu tematiko eta zinematografiko batetik. Filmeak ez du diktadorearen irudia ikuspuntu tradizionaletik aztertzen, ez du kritikatzeko, ezta erridikulizatzen ere. Datu historiko eta anekdota erdi fidagarrietan oinarrituta, sentimenduz betetzen ditu frankismoa bizi izan duen edonoren gorputzak.

## ZINEA



ELGOIBAR

ERREMINTA  
MAKINA  
INSTITUTUA

## ESKAINZA FORMATIBOA

# 94-95 IKASTURTEA

### HELBURUA

- Teknologia berriek sortzen dituzten beharrei egokitutako hezkuntz kalitate bat eskaintzea.

### HEZIKETA ZIKLOAK

#### III. MAILAKO MODULUAK

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- DELINEAZIO INDUSTRIALA
- AUTOMATIZATURIKO SISTEMEN ETA MAKINEN MANTENUA

### EKIPAMENDUA

- PRODUKZIO MAKINERIA: 3CNC Torno, 3 CNC Fresadora, 2 Mekanizazio Zentru, 2 CNC Rektifikadora.
- CNC-CAM MODULU DIDAKTIKOAK: 4 Torno eta 4 Fresadora.
- CAD-CAM-CAE MODULUA: 15 Work station 2D/3D eta Software integratua.
- ERREMINTA MAKINA KONBENTZIONALA: Tornuak, Fresadorak, Rektifikadorak eta Mandrinadorak, Zerrak, Zulatzeko makinak.
- METROLOGIA LABORATEGIA: Kontrol tridimensional makina motorduna, Laser Interferometroa.
- SAIKUNTZA LABORATEGIA: Fotomikroskopia metalografikoa, Durometroak, Labea.
- AUTOMATISMO LABORATEGIA: Hidraulika, Neumatika, Elektronika, Elektrizitatea, Automata Programagarriak, Serboeragintzak.



### AURREINSKRIPZIOA ETA INFORMAZIOA

#### MAIATZAREN 4tik 18ra EGIN BEHARREKOA

- Bizilekuaren ziurtagiria
- Familia liburuaren fotokopia
- Errenta aitopenenaren fotokopia (aukerakoa)

San Roke Auzoa, 1 - ELGOIBAR

Tfno. (943) 74 41 32 • Faxa: (943) 74 41 53

Ordutegia: 9,00etatik 13,00etara - 14,30etatik 17,30etara

PASSAT  
BERRIA 

**Buruarekin erosten duenak,  
bihotzarekin ospatzen du.**



**Kalitatea detaileek ematen dute.**



**Zaletasun handien atzean  
arrazoi onak egoten dira beti.**